

FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak, izenak esaten duen moduan, enpresa batek egin behar dituen jarduerak dira, bere negozioa funtziona dezan. Hau kontuan hartuta, gure enpresaren helburua, ekintza dibertigarriak eta bezero aktiboak bilatzean datza.

Alde batetik, esan bezala, eskaintzen ditugun ekintzak dibertigarriak eta entretenagarriak izan behar dira, bezeroa erakartzeko helburuarekin. Gure zerbitzuak, bezeroak erakartzeaz aparte, hauek gustura sentitzea eta ahalik eta beraien behar gehienak asetzea da. Esandakoa kontuan hartuta, gure funtsezko jarduera, gure bezeroen interesak eta egoera aztertzean datza.

Beste aldetik, ekintzetan parte hartzeko prest dauden bezeroak bilatu behar ditugu. Gure bezeroak, pertsona aktiboak edo jende berria ezagutzeko prest dauden pertsonak izan behar dira, ekintzetan gustura sentitu ahal izateko. Horregatik, gure beste funtsezko jarduera bat, bezeroak bilatzea eta gustura sentitzea da.

Gainera, aipagarria da ere, makina egokiak bilatu behar ditugula. Azkenean, aurreikusten dugu gure jarduerak berritu behar izango ditugula denbora pasa ahala, jendearen interesen arabera. Beraz, denbora osoan, prest gaude ekintza berriak eta eskatuak bilatzeko.